

**HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BIZKAIA SORTALDEKO
INDUSTRIALDEA SA-REN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2017**

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osokoak joan den uztailaren 24an aho batez onartu zuen Bizkaia Sortaldeko Industrialdea SAren ekonomia eta finantzaren kudeaketaren gaineko fiskalizazio txostena, 2017ko ekitaldiari buruzkoa.

2017ko urteko kontuei dagokienez, Epaitegiak aldeko iritzia plazaratu du.

Gainera, adierazi du Sozietateak zuzentasunez bete duela 2017ko ekitaldian ekonomia-eta finantza-jarduera arautzen duen legezko araudia; alabaina, ekitaldian 48.991 euroren gastua eragin duen kontratu bat -5 urtetarako esleitu zena- prozedura irekia baliatuta esleitu behar zatekeen.